

PRENTSA OHARRA

DARÍO SOTELO BRASILDAR MAISUAK ZUZENDUKO DU UDAL MUSIKA BANDA IGANDEAN EUSKALDUNA JAUREGIAN LATINOAMERIKAR UKITUAK ETA EUROPAKO MUSIKA KLASIKOA UZTARTUKO DUEN KONTZERTUAN

- **Brasildar maisua, Udal Musika Bandaren denboraldi honetan azken Zuzendari gonbidatua izango da eta bere herrialdeko autore eta moldatzaileen obrak ezagutarazten egin duen lanagatik da ezaguna nazioarte mailan**
- **Atlantikoaren bi aldeetako autore garaikideen obrak aukeratu ditu emankizun honen erreperetoriorako: Villani-Côrtes, Valencia, Shostakovich, Ellerby eta Jager.**
- **Emanaldia eguerdiko 12:00etan hasiko da Euskalduna Jauregian. Sarrerak 2 eurotako salneurrian.**

Bilbon, 2010eko otsailak 25.- Bilboko Udal Musika Bandak **Darío Sotelo zuzendari gonbidatuaren aginduetara eskainiko du** igandeko kontzertua. Brasildar maisuak, bilbotar bandaren denboraldi honetako azken zuzendari gonbidatuak, autore klasiko europarrak eta kontinente amerikarrekoak aukeratu ditu okasioko programarako. Ohikoa den moduan, kontzertua **eguerdiko 12etan** hasiko da eta sarrerak **2 eurotan** izango dira.

Haize orkestra eta bandak zuzentzen espezialista da **Darío Sotelo**. Bere ibilbidean zehar, brasildar musikari eta moldatzaile garaikideen obrak dibulгатzen egin du lan hainbat herrialdeetan burututako zenbait master eta lehiaketetan parte hartuz. Ekinbide honetan Paulista Sinfonikoan eta Soprosen egindako lana nabarmentzen da (biak Sao Paulokoak), zortzi disko grabatu dituztelarik.

Igandeko kontzertuan, otsailak 28, bilbotar ikuslegoari latinoamerikar autoreen obrak eskainiko dizkio, hala nola, **Edmundo Villani-Côrtes** brasildarrarenak zein **Victoriano Valencia** kolonbiarrarenak, biak, euren herrialdeen erritmoekin musika klasikoari ekarpen aberatsak egiteagatik ezagunak. Bandak interpretatuko dituen obren artean ditugu 'Braseijo' (Villani-Côrtes) eta 'Suite colombiana' (Valencia). Hauekin batera autore europar garaikideen obrak ere entzungai izango dira, hala nola, 'Festive overture' (**Dimitri Sho Stakovich**) eta 'Evocation' (**Martin Ellerby**). Programa osatzeko 'Variation on a theme of Robert Schumann' interpretatuko du bandak, **Robert Jager** estatubatuarrek **Schumannen** obrari egindako moldaketa.

Kontzertu hau Bilboko Udal Musika Bandak neguko denboraldian emango duen azkenaurrekoa da. Ziklo hau datorren martxoaren 28an amaituko da Euskalduna Jauregian Bilboko Club Cocheritori eskainiko zaion kontzertu omenaldiarekin, aurtien ehun urteurrena betetzen duena.

Sarrerak eskuragarri daude: Euskalduna Jauregiko leihatilan, 944 310 310 telefonoan, BBK Kutxazainetan edo interneten: online, BBKren bidez.

Bilboko Udal Musika Banda BILBAOMUSIKA Bilboko Udaleko Kultura eta Hezkuntza Sailaren menpeko organismo autonomoaren ardurapean dago, Musika Eskola eta Txistularien Banda bezala.

Informazio gehiago:

PRENTSA-BULEGOA: L&V COMUNICACIÓN – Itziar Villamandos

Kale Nagusia, 81 – 3. solairua, 9. saila, 48011 BILBO

Tel. 94 416 08 00 -Faxa: 94 439 30 56

Eskukoa: 657 796 583

villamandos@lvcomunicacion.com